www.emaus.com

ESKU-ARGI II

PROZESUAREN SISTEMATIZAZIOA
KOMUNITATE INKLUSIBOKO ERAIKUNTZARAKO EKARPENAK EN TRANSICIÓN MUGIMENDUAREN ESKUTIK

emaús
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL

0. SA-RRERA

Dokumentu honen helburua esperientziaren sistematizatzea burutzea da. Esperientzia hau dimentsio handiagoa duen prozesu baten parte da, gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektu baten bidez. Emaús Gizarte Fundazioak Mungialdean garatzen duen proiektua bertako beste gizarte eragile batzuen lankidetzan.

Azken 4 urteetan zehar, *Eskua Argi: garapen komunitario inklusiborako tresna bat ekonomia sozial eta solidariotik, tokiko eta globaleko Giza Garapenerako* izenburuarekin, hezkuntza eraldatzailetik elementu horiekin lan egiteko beharrari erantzuten dieten jarduera eta prozesu ezberdinak garatu dira, bi faseetan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin. Elementu horiek ekarpena egiten diote egoera bati, non gizarte justizia erreala eta iraunkorra izan dadin.

Hori horrela, *Esku Argi*-ren lehenengo fasearen (2016-2018) garapenean modu parte hartzailean identifikatutako eta sustatutako gako, ikaskuntza eta aliantzetatik abiatuz, sistematizazio hau kokatzen den bigarren fase honen helburua da, al batetik garapen komunitario inklusiboaren inguruan eta honek dituen dimentsio ezberdinen sakontze parte-hartzaile eta kolaboratzailearen jarraitzea; beste aldetik, komunitate inklusibo bat eraikitzera laguntzen duten artikulazio tresna eta prozesuak sustatzea, guri dagokigun eta gizarte eragile garen tokiko ingurunean, ondorengoen bitartez:

- Jasangarritasun ekonomikoa, ekologikoa eta sozialaren alde egiten duten ekimenak eta praktikak sustatu, inklusioa eta genero berdintasunaren gakoan.
- Tokiko gaitasunak sendotu.
- Partaidetza komunitarioko prozesuak sortu, artikulatu eta lagundu.
- Gizarte erakundeen instituzio-sendotasunaren alde egin.
- Ezagutzaren interlokuzioa eta elkar-trukea erraztu, tokiko erakundeen eta Hego globaleko erakundeen artean.

Hori horrela izanik, hemen adierazten dugun *Esku Argi* prozesuaren faseak kontuan hartu du, bere 4 lan ildoetako bat bezala, prozesu parte-hartzaile baten garapena ingurumenaren jasangarritasunaren esparruan, Giza Baliabideen ikuspegi batetik eta inklusio eta genero berdintasuna kontuan hartuta. Prozesu hau aurrera eraman dutenak Emaús Gizarte Fundazioa (EGF) eta Butroi Bizirik en Transición (BTT) izan dira, Bitartean programaren laguntza, lankidetza eta partaidetzarekin, baita tokiko beste erakunde, elkarte eta gizarte eragileekin.

1. JUSTIFI-KAZIOA

Dokumentu honen helburua da esperientzia honen sistematizazioa burutzea, prozesu parte hartzaile moduan artikulatu dena eta izenburua duena ***Ekarpenak komunitate inklusiboak eraikitzearen bidean mugimendutik***.

Sistematizazio honen garapenean aritu garen eragileen ustez prozesu hau abiatzen dugu "esperientzia baten edo batzuen interpretazio kritikoa bezala, hauen ordenamendu eta berreraikuntzatik abiatuz deskubritzen edo zehazten du, bizitako prozesuaren logika, prozesu horretan esku-hartu duten faktoreak, beraien artean izandako erlazioa, eta, zergatik egin duten modu horretan" (Oscar Jara, 1998).

Sistematizazio hau burutzearen helburua da ezagutzea, ezagutzera ematea eta kualifikatzea, praktika ezagutzaren ekoizpen prozesu bezala, eta, era berean, bertako aktoreek ikaskuntza eta izaera estrategikoko ezagutza eta ekimen berrien sorrera prozesuan barneratzea erraztea, garatutako esperientziatik abiatuta.

Sistematizazio honen elaborazio prozesu bertatik dokumentu bat lortzea espero dugu. Dokumentu horrek bere oinarria praktika zehatz batean badu ere, estrapolatu daitezkeen ikaskuntzak, gakoak eta konklusioak sortzea espero da, edo/eta esperientzia honen errepikapenak sustatzeko garaian gida batzuk elaboratzea edo/eta sistematizatutako praktikari jarraitutasuna ematea.

Beste alde batetik, esperientzia honen sistematizazioak beste gizarte erakunde edo artikulazio batzuentzat baliagarri izan litekeela uste dugu, tokiko garapen komunitario inklusibo bat sustatzeko bidean aurrera egin nahi izatea helburu duten, tokiko eremuan eta modu parte hartzailean lan egiten duten erakundeentzat.

Sistematizatu nahi den prozesu parte-hartzaile hau esperientzia pilotu bezala sortu da, bai hasierako planteamenduan bai bere garapenean. Prozesu honek posible egin du artikulazio parte-hartzaile eta eragile-anitzeko esperientzia erreal bat garatzea, hezkuntza herrikoiaren bidetik horrekin batera garatu ditu, bai hausnarketa bai ingurunearen jasangarritasunean eta gizarteratzean finkatuta dauden jarduera ezberdinak garatzea, komunitate inklusibo baten sustapenerako lanerako ildo bezala Mungialdean.

Esperientzia honetatik sistematizatu eta atera nahi diren alderdi nagusienak, prozesua osatzen duten jarduera multzoaren garapenetik eta prozesu bertatik sortutako ikaskuntzak dira, errealitatera modu egokitu eta eraginkorrenean orientatzeko asmoz, komunitate inklusiboen eraikuntzaren inguruan partaidetza lana Mungialdean.

Esperientzia hau sistematizatzera bideratzen gaituzten kezkak eta erronkak eta esperientzia berak hauen aurrean gako modura ekarpenak egitea espero direnak, ondorengoak dira:

- Metodologia berritzaile berriak diseinatzeko beharra, gaitasun kolektibo eta indibidualen sendotzeko prozesuak hobetzeko, tokiko giza garapen komunitario bati bideratuak inklusioaren bidetik, esperimentazio arduratsutik.
- Mungialdeako gizarte eragile, hezkuntza eragileen eta, oro har, herritarren kontzientzia solidarioa eta eraldatzailea zabaltzeko beharra, beraiek postulatu eraldatzaileak bereganatzeko eta euren ingurunean aldaketa subjektuak izatera iristeko.
- Mungialdean sortutako dimentsio anitzeko gizarte eragile sarea finkatzeko, sendotzeko eta ahalduntzeko lana erraztearen beharra, aipatutako herriko Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriko Talde Motorraren inguruan.
- Eremu ezberdinetatik hiritartasun global jasangarriko eta ekitatiboko alternatibak bilatzen eta eraikitzen dituzten subjektuen elkarren arteko laguntzaren beharra (ekonomia, ingurumena, genero berdintasuna, gizarteratzea, kultura, aisialdia, tokiko gobernua, etab.).
- Epe luzera estrategiak diseinatzeko beharra, berritzaileak eta ikuspegi partekatua dutenak, Mungialdeako eskualdean izaera inklusiboko DHL Komunitarioa sustatzen dutenak.

2. HELBURUAK

Esperientzia honen sistematizazioa burutzen den ikuspegiak garrantzia jartzen du, **ingurumen jasangarritasunean finkatutako prozesu parte-hartzailearen gaitasuna, bazterketa egoeran edo/eta arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea sustatzeko,** Mungialdean.

Modu zehatz batean, prozesu honen sistematizaziorako zehazten diren helburuak hauek dira:

- Balioan jarri prozesua bere baitan, bai parte hartzen duten pertsona eta erakundeentzat bai komunitate osoarentzat.
- Balioan jarri tokiko eragileen artikulazioaren izaera estrategikoa, garapen komunitario inklusibo baten sustapenari dagokionez.
- Ikaskuntzak eskuratu modu parte hartzailean eta beste eragileekin partekatu, inguruko gizarte eragile zein instituzio-eragileekin.
- Erronkei erantzuten dien lan proposamen bat eraiki (jarraipen bat hobetu eta sustatu neurtuagoa eta estrategikoagoa); oinarri parte-hartzaile eta sendo bat izan, honen errepikapen diseinurako balio izateko.
- Tresnak edo/eta praktika egokiak sortu garapen komunitario inklusibo bat sustatzen laguntzeko Mungialdean eta oro har, Bizkaian.

3. TEXTU-INGURUTZEA

ETA PRAKTIKAREN BERRERAIKETA

3.1 FASEA 1: TESTUINGURATZEA:

Atal honetan sistematizatuko den praktika kokatzen den testuinguruaren azterketa bat jasotzen da, bere helburua kokatzea da, beregan zuzenean eragiten duten elementu eta dimentsio ezberdinak kontuan hartuta.

- Aurrekariak

-Eremu geografikoa: Mungialdea, intzidentzia berezia eginez Mungian eta Gamiz-Fikan

-Garatzen den eremua: Gizarte eraldaketarako hezkuntza eta intzidentzia

Emaúseko Eraldaketarako Hezkuntza, Intzidentzia eta Komunikazioa (ETIK) sailetik eta Gamiz-Fikako Bitartean Programarekin lankidetzan, 30 urte inguru daramate lanean Mungialdeko eskualdean, gizarteratzeko eta izaera komunitarioko proiektuak garatzen, gizarte bazterketa egoera larrian dauden pertsonei zuzenduak.

Hori horrela, jarduera esparru honetan eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren ikuspegi batetik, ekintza eta prozesu ezberdinak garatzen joan dira, Mungialdea eskualdea erreferentziako esparru fisikoa izan delarik, Mungia eta Gamiz-Fika herrietan eragin eta jarduera gehiago eginez. Hala ere, burututako jarduera ezberdinetan lurraldeko gizarte eta hezkuntza eragileen eta jatorri ezberdineko pertsonen partaidetza eta lankidetza izan da.

Beste alde batetik, ekonomia solidarioko sareetan eta lan-taldeetan partaidetza aktiboak, gizarteratzeko prozesuetan eskarmentuak eta foro eta eztabaidetan parte hartzeak, EGF hausnartzera eraman zuen eztabaida eta ikaskuntzako espazioak sortzeko edo islatzeko beharraren inguruan, ekonomia solidariotik aurkeztu zitezkeen ekarpenak eta erronkak ikustera emateko, gizarteratzea eta giza garapen jasangarria sustatzeko alternatiba bezala.

Lan eta hausnarketa etengabe honek posible egin du bertako hainbat gizarte eragileen artean erlazioa sortzea eta beraiekin lotura eta aliantza sendoak sortzea. Era berean, ikuspegi eraldatzaile berdina partekatzen dute eta tokiko giza garapen jasangarri eta inklusiboaren garapen baten sustapenaren esparruan bat egiten dute.

- Testuinguruko elementuak

-Prozesu markoa: Esku Argi (2016-gaur egun)

Kontuan hartuta, lehen, lan eremu geografikoari dagokionez adierazitakoa, eta horri dagokion ezagutza historikoa, hainbat elementu identifikatu ziren, bai Ekonomia Solidarioaren lan eremuaren bai Gizarteratzea eremuaren elementuak, hauek bat egin zuten *Esku Argi: garapen komunitario inklusiborako tresna bat ekonomia sozial eta solidariotik, tokiko eta globaleko giza garapenerako*, deituriko prozesuaren diseinuan eta definizioan. Lan honen helburu nagusia da "tokiko edo bertako lankidetzako eragileen gaitasun indibidualak eta kolektiboak sortzeko prozesuak sendotzea, tradizionalak eta ez tradizionalak Bizkaikoak eta Hegoaldekoak, modu progresibo batean Giza Garapen Jasangarria bultzatzeko bere hiru dimentsioetan (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa), partaidetza kolektibotik, genero ikuspegitik eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparruan".

Identifikatutako eta helburu nagusiaren artikulazioa definitu zuten hainbat behar amankomun lotura-gune ezinbestekoak ondorengoak izan ziren:

1. Barneratu modu multisektorial batean gizarte bazterketa globalaren eta tokikoaren erronka berriak, baita hauek sortzen dituzten egiturazko aldagaiena ere, Bizkaiko lankidetzako eragileen eztabaidara eta praxira.
2. Pobrezia vs desberdinkeria gaien inguruan kontzeptuak bateratu.
3. Metodologia berritzaile berriak diseinatu gaitasun kolektiboen eta indibidualen sendotze prozesuen hobekuntzarako, tokiko giza garapen komunitariora (TGGK) zuzenduak inklusioaren baitan eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparruan, esperimentazio arduratsutik.
4. Bizkaiko lankidetzako eragileen kontzientzia solidarioa zabaldu, bereziki Mungialdea eskualdeko eragileetan.
5. Tokiko eta eragile anitzeko sareak artikulatu lan parte-hartzaile bat sustatzeko helburu orokor bat erreferentzia hartuta, tokiko giza garapen jasangarri eta inklusibo baten sustapena bezala.

Horrela, *Esku Argi* prozesuaren lehenengo fasean (2016-218) ondoren adierazten diren 4 lan lerro nagusi finkatu eta garatu ziren:

TOKIKO EDO BERTAKO LANKIDETZAKO ERAGILEEN GAITASUN INDIBIDUALAK ETA KOLEKTIBOAK SORTZEKO PROZESUAK SENDOTZEA, TRADIZIONALAK ETA EZ TRADIZIONALAK BIZKAIKOAK ETA HEGOALDEKOAK, MODU PROGRESIBO BATEAN GIZA GARAPEN JASANGARRIA BULTZATZEKO BERE DIMENTSIOETAN, SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INGURUMENA

- L1: KONTZIENTZIAZIO SOLIDARIOA BIZKAIAN, DIFUSIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA
- L2: FORMAZIO ERAGILE-ANITZA IPAR-HEGO TOKIKO GIZA GARAPEN KOMUNITARIOARI BURUZ
- L3: ERAGILE-ANITZEKO HAUSNARKETA ETA EZTABAIDA PARTE-HARTZAILEA POBREZIAREN, GIZARTE BAZTERKETAREN, GIZARTE DESBERDINKERIEN ETA HAUEK GUZTIAK SORTZEN DITUZTEN EGITURAZKO ARRAZOIEN INGURUAN, GLOBALAK NAHIZ TOKIKOAK.
- L4: SAREEN SORRERA TOKIKO MAILAN

Lau lan lerro horietan guztietan, gizarte erakunde eta GGKE ezberdinekin lankidetza burutu da, baita, bereziki, Mungialdea eskualdeko eragile ezberdinekin ere. Lankidetza estu honek agerian jarri zuen lerro zehatz komunen existentzia lan bateratu eta parte-hartzailearentzat Emaús Gizarte Fundazioa, Bitartean Programa eta Mungialdea eskualdeko gizarte eragile baten artean, hain zuzen ere Butroi Bizirik en Transición.

- Ingurumen jasangarriko prozesu parte-hartzailea: Komunitate inklusiboen eraikuntzara Trantsizioan mugimendutik ekarpenak.

-Esku Argi prozesuaren garapenetik eratorritako aukera

Esku Argiren lehenengo faseak posible egin zuen lan-komunitarioko esperientziak, lan-harreman oso aberasgarrien eta elkarren arteko konfiantzan oinarritutakoen sorrera sustatu zuen. Lehenengo fase horren amaieran, eragile nagusiek aukera estrategikoak identifikatu zituzten tokiko garapen komunitario inklusiborako ekarpenak egiteko. Aukera estrategiko hauek oinarri izan ziren *Esku Argiren* bigarren fasea (2018 – gaur egun) definitzeko eta modu parte-hartzailean eraikitzeko. Modu parte-hartzailean identifikatutako aukera estrategiko batzuk hauek izan ziren:

- ✓ Komunitatearekin eta gure gertuko ingurunearekin (Mungialdea) erlazio estuagoa bultzatu, ingurumen eta bizitzaren jasangarritasuna sustatzeko ezinbesteko elementua.
- ✓ Gaitasun indibidualak eta kolektiboak bultzatu eta sendotu tokiko mailan.
- ✓ Bitartean Programako parte hartzaileen ahalduntze inklusibo eta integratzaile bat sustatzea.
- ✓ Tokiko norberaren eta gizarte eraldaketa bultzatu ingurumenarekin armonian dagoen esparru batean eta genero ikuspegiarekin.
- ✓ Partaidetzara irekiak dauden espazioak babestu, sustatu eta artikulatu, komunitate inklusibo eta integratzaile bat eraikitzeko ekarpenak egiten dituzten elementuen inguruan hausnarketa egiteko, tokiko giza garapen jasangarritik.
- ✓ Mungialdeako irakaskuntza zentroetan hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerak identifikatu, proposatu eta garatu tokiko erakundeekin batera, modu lerrokatuan eta lankidetzan, ingurumen jasangarritasuna bultzatzera bideratuak pertsona guztien inklusiotik.
- ✓ Ezagutzak eta ikaskuntzak bateratu, modu parte hartzailean, giza garapen jasangarria eta inklusioaren dimentsio ezberdinen inguruan.
- ✓ Garapen komunitarioko prozesuen esperientzia berritzaileen elkar trukaketa ezagutu eta sustatu, Ipar zein Hegoaldekoak.
- ✓ Metodologia berritzaileak ezarri, gaitasun kolektiboak eta indibidualak sendotzeko prozesuen hobekuntzarako, TGGK batera bideratuak.
- ✓ Mungialdean sortutako gizarte eragileen dimentsio-anitzeko sarea finkatu eta sendotu, Mungiako Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriak Talde Eragilearen inguruan.

Horrela, Esku Argi (2018-2020) prozesuaren bigarren faserako, dokumentu honen helburua den sistematizazio prozesu hau integratzen den fase honetan, lau ekintza lerro nagusi finkatu ziren eta lerro horiek garatzen ari dira:

L1	L2	L3	L4
SAKONTZE EKOLOGIKOA ETA IKASKUNTZEN ARTIKULAZIOA GARAPEN KOMUNITARIO INKLUSIBOAREN INGURUAN	PROZESU PARTE-HARTZAILE BATEN GARAPENA MUNGIALDEA ESKUALDEKO ERAGILEEKIN, GEETAN ETA JASANGARRITASUNEAN OINARRITUTA, INKLUSIOA ETA GENERO BERDINTASUNA KLABEETAN	PARTAIDETZA IREKIKO FORMAZIO PROZESU BATEN GARAPEN PARTE-HARTZAILEA, GARAPEN KOMUNITARIO INKLUSIBO BATEN SUSTAPENERAKO DIMENTSIO EZBERDINEN INGURUAN	PARTAIDETZA LANEAN ETA LAN INKLUSIBOAN OINARRITUTAKO TOKIKO ERAGILE-ANITZEKO SAREA FINKATZEA ETA SENDOTZEA

Sistematizatu nahi den ingurumen jasangarritasuneko prozesu parte-hartzailea, eragile ezberdinek (Emaús Gizarte Fundazioa, Bitartean Programa eta Butroi Bizirik en Transición) burututako hausnarketa bateratutik sortzen da, Esku Argi prozesu markoan zuzenean inplikatuta dauden eragileak. Horrela, eraikitako erlazio estuak, helburuak eta ikuspegiak partekatzeak eta ekintzak elkarrekin garatzean egindako ezagutzak, aukera estrategiko bezala identifikatzera eraman gintuen, giza garapen komunitario jasangarri eta inklusibo bat bultzatzeko gaitasun indibidualak eta kolektiboak sortzeko. Prozesu parte-hartzaile bat burutu ahal izatea, hainbat elementu barneratzen dituena: inklusioa, ingurumen jasangarritasuna, hezkuntza eraldatzailea, intzidentzia, partaidetza eta komunitate sorrera.

Mota honetako ezaugarriak dituen prozesu bat garatzea aukera bat dela uste dugu, komunitate justuagoa eta ekitatiboagoa eraikitzearen inguruan elkarren artean burututako lana bideratzeko, gizarteratzeko sustapenetik eta ingurumen jasangarritasunaren markoan.

Modu honetan, prozesu honek eragileen artikulazioko eta partaidetza komunitarioko esperientzia erreal bat izatea bilatu du, pertsonen inklusioa eta integrazioa sustatzea helburu bezala duen eragin batetik, ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzea bilatzen dute ingurumen eta bizitzaren jasangarritasunaren esparruan; eta, modu honetan, tokiko giza garapen jasangarri eta inklusibo baten bultzatzen laguntzen du.

3.2 FASEA 2: PRAKTIKAREN BERREREAIKUNTZA

- **Garapen prozesuaren aktore zuzenak eta zeharkakoak:**

Prozesu parte-hartzaile guztietan, esperientzian partaidetza zuzena duten indibiduo edo talde batzuk esku-hartzen dute. Garapeneko esperientziaren erabakietan eta ekintzetan norbanako modura parte hartzen duten horiek dira. Esku artean dugun prozesu honetan, prozesuaren zein sistematizazio honen eragile zuzenak hauek dira:

- *Butroi Bizirik en Transición (BBT):* Aldaketa pertsonalerako eta gizarte aldaketarako lan egiten duen talde irekia gara, non bertan guztion onura eta elikadura, energia, teknologia zein elikadura burujabetza bultzatzen ditugun Mungialdeako eremuan, beti ere naturarekin armonian. Egun erakunde honek 65 bazkide ditu eta bere lan eremu nagusiak dira: tokiko ekonomia, ingurumena eta komunitatea.
- *Emaús Gizarte Fundazioa (EGF):* Irabazi asmorik gabeko erakundea da eta bere helburua prozesu eraldatzaileak, indibidualak zein kolektiboak, sustatzea eta laguntzea da gizarte, ekonomia eta ingurumenaren eremuetan, gizarte bazterketa egoeran edo egoteko arrisku larrian dauden pertsonen bizitza baldintzen eta ahalduntzearen hobekuntzari lehentasuna emanez.

- *Bitartean Programako (Gamiz-Fika) partaideak eta langileak:* Gizarte bazterketa larrian dauden pertsonen akonpainamendu programa integrala eta indibidualtasunaren errespetua. Norbanakoaren prozesuetan zehar laguntza indibidualizatua eskaintzen da, eta honen helburua da pertsonak, pertsona aktibo den bezala, bere zoriontasun proiektua eraikitzea da arreta biopsikosozialeko eredu baten bidez. Programa hau Emaús Gizarte Fundazioak garatzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzarekin. Egun Bitartean Programan 20 partaide daude eta hauek %25 emakumeak dira.

Beste alde batetik, sistematizazio honen helburu bezala, prozesuaren zeharkako aktore bezala ondorengoak nabarmentzen ditugu:

- *Mungiako Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriaren Talde Eragilea:* Modu formalean 2017/10/17an sortua eta Mungialdeko gizarte erakunde, elkarte kultural eta aisialdi elkarte ezberdinez osatua, horien artean aurkitzen da EGF eta bere helburua da hausnarketa eta difusioa egitea intzidentzia ardatz hartuta eta tokiko eremutik, bazterketa/inklusioko prozesuekin, ingurumen jasangarritasuna, bidezko merkataritza eta ekonomia sozial eta solidarioarekin erlazionatutako gaien inguruan; partaidetzatik, genero berdintasunetik eta herritartasun aktibo baten eraikuntzan laguntzeko.

- *Zerinthya elkartea:* Tximeleten eta hauen habitata osatzen duten lekuen zaintza eta ikerketan interesa duten pertsona profesionalez eta ez profesionalez osatuta dagoen elkartea. Era berean, elkartearen asmoa da ingurumenaren inguruan kontzientzia soziala sortzea, beti ere tximeletei dagokionez, dibulgazioaren eta jarduera pedagogikoen bidez.

- *Mungiako Eskolako Agenda 21:* Hezkuntza programa ikastetxeen jasangarritasunerako eta kalitaterako. Komunitatearen partaidetzan oinarritzen da eta herriaren garapen jasangarrian esku-hartzen eta horretan eragiten du, kasu honetan, Mungia herrian. Ingurumen Hezkuntzako programa denez, bere helburua ezagutzak, gaitasuna, jarrerak, motibazioa eta konpromisoak garatzea da, ingurumen arazoen konponketan. Mungiako Agenda 21en lankidetzaren sorrera aurretiko esperientzietan du, Emaús Gizarte Fundazioak herriko ikastetxeetan emandako hezkuntza formaleko ekintzetan lankidetza eginez, bai inklusioaren esparruan, bai ingurumen jasangarritasunaren esparruan; baita sentsibilizazio eta ingurumen hezkuntzako jarduerak ingurunean garatzen, BTTren eskutik.

- *UPV-EHUko Gizarte Hezkuntzako Graduko 2. mailako ikaslegoa:* Azken 5 urteetan zehar eta "Esku-hartzearen Planifikazioa" ikasgaiaren esparruan, Gizarte Hezkuntzako Graduko 2. mailan. Emaús Gizarte Fundazioa eta UPV-EHUko Gizarte Hezkuntzako Gradua Ikaskuntza-Zerbitzua metodologia lantzen ari dira, etorkizunean hezitzaileak izango diren ikasleek, lan eta norberaren helburu bezala hain zuzen ere gizarte beharrekin esku-hartze zuzen hau izango dutenek, egoera hauekin erlazionatutako akademia-ikaskuntza bat izan dezaten sustatzeko helburuarekin. Erabiliko eta landuko den metodologiak, beraien ikaskuntzan eragina izateaz gain, konpetentziak eskuratzeko aukera eskaini beharko die, euren jarduera profesionala etorkizunean garatuko duten eremuan.

Sistematizazio hau garatzeko bi motatako aktoreen iritzia eta ikuspuntuak kontuan hartzen dira, bakoitzaren ikuspegia edo ikuspuntua sistematizaziora barneratzeko helburuarekin, sistematizatzen den prozesuari dagokionez.

- **Sistematizazioko praktika helburua**

  - *Praktikaren helburuak eta asmoa:* Lantzen ari garen prozesu parte-hartzailea gauzatzeko hasieran jasotako planteamenduaren helburua izan da, hausnarketa espazio bat sustatzea, bertan inguruko gizarte eragileek, horien artean Mungiako bidezko merkataritzaren aldeko hirien talde eragileko kide diren erakundeak, BTT eta Gamizeko Bitartean gizarteratzeko programako langileak eta partaideak bezala, helburu komunak partekatzeko eta identifikatzeko gizarteratzearekin artikulatutako ingurumen jasangarritasunaren sustapenaren esparruan, Mungialdeako eremuan. Hori guztia, jarduera lerro komunak identifikatzeko helburuarekin, esperientziatik abiatuta, gaiaren inguruan sentsibilizazioa eta intzidentzia sustatzeko; eta, helburu nagusia da Mungialdean garapen komunitario inklusibo baten alde egitea.

  - *Prozesuaren diseinua eta metodologia:* Anitzak eta artikulatuta dauden, guztiak gizarte eraldaketaren sustatzaile diren, norbanako indibidual eta kolektiboek bultzatutako prozesu parte-hartzaile honen proposamena eta diseinua oinarritzen diren ikuspuntu politiko-pedagogikoa hezkuntza herrikoian aurkitzen da, gizarteratzeko oinarri bezala. Ikuspegi honek posible egiten du prozesuaren erdian pertsonen formazioa kokatzea, eraldaketaren eta prozesuaren eraikuntza beraren subjektu kontziente bezala, gizarteratzeak izaera berritzaile bat hartzea posible eginez. Horrela, prozesuan parte hartzen duten pertsona guztien esperientziak jasota geratzen dira.

Hezkuntza herrikoiaren ikuspegi batetik abiatuta, prozesuaren garapenak prozesuaren eta bera osatzen duten esperientzia ezberdinen sistematizazioa kontuan hartu du, joera eraldatzailea duen eraikuntza kolektiboko ahalegin baten parte bezala, emantzipaziora, inklusiora eta jasangarritasunera ekarpenak egiten dituena. Sistematizazio honen elaborazioak praktikaren garapen bera lagundu du, hau da, prozesu parte-hartzailea.

Modu honetan, hezkuntza herrikoiaren ikuspegi pedagogikoarekin koherentzian, bai esperientziak identifikatzeko eta diseinatzeko bai horiek sistematizatzeko erabilitako metodologiak parte-hartzaileak izan dira. Hau da, "nola" horietan, praktikaren eta prozesuaren definizioari, garapenari eta irakurketa kritikoari dagokionez. Eragile eta pertsona parte hartzaileak eragile aktiboak izan dira, praktikaren eta ezagutzaren eraikuntzan protagonista.

  - *Partaidetza prozesuaren esparruan planifikatutako eta garatutako esperientzien aurkezpen laburra:*

EXPERIENTZIA 1

2019/03/26	BISITA GIDATUA GAMIZEKO GIZARTERATZEKO BITARTEAN PROGRAMARA.
ERANTZUN BEHARREKO ERRONKA NAGUSIA	Esperientzien elkar-trukea sustatu garapen komunitarioko prozesuen inguruan.
INTZIDENTZIAKO GIZARTE EREMUA	Gizarteratzea Ingurumen jasangarritasuna Eraldaketarako hezkuntza Sentsibilizazioa
INPLIKATUTA DAUDEN ERAGILEAK	BBT EGF UPV-EHUko Gizarte Hezkuntza Graduko ikasleak eta irakasleak Bitartean programako partaideak eta langile teknikoak

EXPERIENTZIA 2

2019/05/13	SAIOEN GARAPENA LANTEGI-LEHIAKETA FORMATUAN MUNGIAKO 3 IKASTETXEEKIN, BIDEZKO MERKATARITZAREN ASTEAREN OSPAKIZUNAREN ESPARRUAN. JARDUERA KOORDINATUA MUNGIAKO ESKOLA AGENDA 21EKIN.
ERANTZUN BEHARREKO ERRONKA NAGUSIA	Hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerak identifikatu, proposatu eta garatu modu bateratu, lerrokatu eta tokiko erakundeekin lankidetzan, ingurumen jasangarritasuna sustatzera bideratuta pertsona guztien inklusiotik.
INTZIDENTZIAKO GIZARTE EREMUA	Gizarteratzea Ingurumen jasangarritasuna Eraldaketarako hezkuntza Sentsibilizazioa Garapen komunitarioa
INPLIKATUTA DAUDEN ERAGILEAK	BBT EGF Mungiako Eskolako Agenda 21 Mungiako Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriaren Talde Eragilea Bitartean programako partaideak

EXPERIENTZIA 3

2019/07/07	TXIMELETEN OASI BAT SORTZEA GAMIZEKO BITARTEAN ZENTROAN.
ERANTZUN BEHARREKO ERRONKA NAGUSIA	Norbanakoaren eta komunitatearen eraldaketa sustatu, ingurumenarekin armonian dagoen eta genero ikuspegia duen esparru batean.
INTZIDENTZIAKO GIZARTE EREMUA	Gizarteratzea Ingurumen jasangarritasuna Eraldaketarako hezkuntza Sentsibilizazioa Garapen komunitarioa
INPLIKATUTA DAUDEN ERAGILEAK	BBT EGF Bitartean programako partaideak eta langile teknikoak Zerinthya elkartea

EXPERIENTZIA 4

2019/07/04, 2019/09/25, 2019/10/31	INGURUMEN SENTSIBILIZAZIO ETA FORMAZIO LANKIDETZA SAIOAK BITARTEAN PROGRAMAKO PARTAIDEENTZAT.
ERANTZUN BEHARREKO ERRONKA NAGUSIA	Tokiko mailan gaitasun indibidualak eta kolektiboak bultzatu, Bitartean programako partaideen ahalduntze inklusibo eta integratzaile bat sustatuz.
INTZIDENTZIAKO GIZARTE EREMUA	Gizarteratzea ngurumen jasangarritasuna Eraldaketarako hezkuntza Sentsibilizazioa Garapen komunitarioa
INPLIKATUTA DAUDEN ERAGILEAK	BBT EGF Bitartean programako partaideak eta langile teknikoak

EXPERIENTZIA 5

2019/10/31	MUNGIALDEAN INGURUMEN JASANGARRITASUNAREN INGURUKO PROGRAMA MONOGRAFIKOA GAUZATZEA ETA HEDATZEA GANBARA GIZARTE IRRATIAN.
ERANTZUN BEHARREKO ERRONKA NAGUSIA	Ezagutzak eta ikaskuntzak bateratu, parte-hartzaile gakoan, giza garapen jasangarri eta inklusiboaren dimentsio ezberdinen inguruan.
INTZIDENTZIAKO GIZARTE EREMUA	Gizarteratzea Ingurumen jasangarritasuna Eraldaketarako hezkuntza Sentsibilizazioa Garapen komunitarioa
INPLIKATUTA DAUDEN ERAGILEAK	BBT EFS Bitartean programako partaideak eta langile teknikoak

- **Esku-hartze prozesua**

Eraikuntza komunitarioko prozesu hau 2019 urtean zehar garatu da eta hiru fase nagusi izan ditu

1. Prozesuaren definizioa, helburuak eta planifikazioa:

KRONOLOGÍA	IDENTIFIKATUTAKO GAKOAK PROZESUAREN GARAPENERAKO
Urtarrila 2019	1 UNEA: PROZESUAREN HELBURUEN DEFINIZIOA
	Gaitasun indibidualak eta kolektiboak sustatu tokiko mailan. Mungialdeako pertsonen, gizarte eragileen eta kolektiboen eraldaketari ekarpenak egin. Bitartean programako partaideei dagokionez ahalduntze inklusiboa eta integratzailea sustatu, aldaketaren eragile bezala.
Urtarrila-otsaila 2019	2 UNEA: PROZESUAREN DISEINUA
	Prozesuaren diseinua eta garapena Hezkuntza Herrikoiaren ikuspegi metodologikotik Ingurumen eta bizitzaren jasangarritasuna, partaidetza komunitarioa sustatzeko elementu bideratzaile bezala.
Otsaila- azaroa 2019	3 UNEA: GARAPENAREN PLANIFIKAZIOA ETA JARRAIPENA
	Urteetan zehar inguruko gizarte eragileekin eta kolektiboekin eraikitako artikulazioak kontuan hartu eta sendotu. Mungialdean garatutako hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerei jarraitasuna eman planifikazio eta garapen parte-hartzaile batetik, ingurumen jasangarritasuna sustatzera bideratuta pertsona guztien inklusiotik.

2. Praktikaren garapena

Prozesu honen garapenak, hezkuntza herrikoiaren ikuspegitik, 5 esperientzia planifikatzea eta garatzea eraman du, egun, prozesuaren aurrekariak, helburuak eta emaitzak kontuan hartzen baditugu, garapen komunitarioaren sustapenerako praktika egokiak bezala kalifikatu ditzakegu.

5 esperientziak zein prozesua bere osotasunean garatuak izan dira kolektibo eta eragile (gizarte eta hezkuntza eragileak) ezberdinen artikulaziotik, gizarteratzea eta ingurumen jasangarritasuna ardatz direlarik. Modu honetan, garapen komunitarioaren garapena sustatzen du eta Bitartean programako partaideen ahalduntzea erraztен du.

1 JARDUERA: BISITA GIDATUA GAMIZEKO GIZARTERATZEKO BITARTEAN PROGRAMARA

Kronologia	Aktore nagusiek egindako papera	Jardueraren laburpena
2019/03/26	UPV-EHUko Gizarte Hezkuntza Gradua: EGFkin lankidetza gizarte erakunde baten hezkuntza formalaren eremuan parte hartzeko, ekonomia solidarioa eta gizarteratzearen eremuetan, eta, ikaslegoaren sentsibilizazioa eta mobilizazioa eremu honetako ekimenetan parte hartzeko. EGF, BBT: Jardueraren diseinua eta koordinazioa Gizarte Hezkuntza Graduarekin eta aurretiko lana ikasgelan sentsibilizazioa lantzeko gizarteratzea eta ekonomia solidarioaren inguruan. Bitartean programako partaideak eta langile teknikoak: Jardueraren garapena inplikatutako gainerako eragile nagusiekin koordinazioan.	Bisita gidatua zentroko langileen eta partaideen eskutik, bertan UPV/EHUko Gizarte Hezkuntza Graduko 5 ikaslek (emakumeak) parte hartu zuten. Bisitaren aurretik eta gizarteratzearen lana komunitate inklusibo eta eraldatzaile baten sorreraren esparruan kokatzeko helburuarekin, aurkezpen bat burutu zen Mungiako Talde Eragileko 2 kideren eskutik.

2 JARDUERA: 2 SAIOEN GARAPENA LANTEGI-LEHIAKETA FORMATUAN MUNGIAKO 3 IKASTETXEEKIN, BIDEZKO MERKATARITZAREN ASTEAREN OSPAKIZUNAREN ESPARRUAN. JARDUERA KOORDINATUA MUNGIAKO ESKOLA AGENDA 21EKIN.

Kronologia	Aktore nagusiek egindako papera	Jardueraren laburpena
2019/05/13	BBT, EGF, Mungiako Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriaren talde eragilea: Koordinazio taldea dinamikak planteatzeko eta jarduerak diseinatzeko. Mungiako Eskolako Agenda 21: Mungiako gizarte erakundeen eta ikastetxeen arteko lotura, guztira DBH1eko 247 ikasle mobilizatu ziren, Larramendi Ikastola, Bentades Ikastetxea eta IES Mungia eta zentro bakoitzeko irakasleak.	Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunaren baitan lantegi-lehiaketa bat garatu zen, eragile-anitzeko artikulaziotik, kontsumo kontziente eta arduratsua eta komunitatearen inguruan, Mungiako 3 ikastetxeetako DBH1ko ikasleentzat. Jarduera honen garapenean ikaslegoak parte hartu du KKeA gaiarekin erlazionatutako erakusketa batean eta ikus-entzunezko 3 material ikusten, bidezko merkataritza, kontsumo kritikoa eta komunitatearen sorrera gaietan oinarrituak. Bi espazioetan parte hartu ondoren, ikasleek taldeka gaiekin erlazionatutako galdetegi bat eta hainbat ariketa burutu dituzte. Material hauek ebaluatu eta baloratu ondoren ikastetxe bakoitzeko talde irabazle bat izendatu da.

3 JARDUERA: TXIMELETEN OASI BAT SORTZEA GAMIZEKO BITARTEAN ZENTROAN

Kronologia	Aktore nagusiek egindako papera	Jardueraren laburpena
2019/07/07	BBT: Ingurumen hezkuntza orokorreko saio bat ematea Bitartean programako partaideei zuzendua, polinizazio-populazioari garrantzia emanez: Jarduera garatu aurretik partaideei eskaintzea, ingurumen jasangarritasunari eta polinizazio-populaziori buruzko jarduera esparru bat eta ezagutza eta orientazio nagusi batzuk. Zerinthya elkartea: Akonpainamendua Bitartean zentroari aurretiko asteetan, beharrezkoak diren materialak eta baliabideak eskura jartzeko, baita partaideen sentsibilizazioan eragiten duen esparru teoriko-praktiko bat emateko. Bitartean programako partaideak eta langile teknikoak: Jardueraren aurretiko prestaketa eta difusioa eta jarduera bera kudeatzea eta garatzea.	Helburu bezala, Bitartean programako partaideen artean ingurumen-hezkuntza eta paper aktibo batetik pertsonen inklusioa sustatzea izanik, Bitartean zentroan jarduera bat diseinatzen eta garatzen da, pertsona guztien partaidetzara irekia. Jarduera hori tximeleten oasi bat sortzean datza, inguruneko polinizazio-populazioa hobetzen laguntzeko.

4 JARDUERA: INGURUMEN SENTSIBILIZAZIO ETA FORMAZIO LANKIDETZA SAIOAK BITARTEAN PROGRAMAKO PARTAIDEENTZAT

Kronologia	Aktore nagusiek egindako papera	Jardueraren laburpena
2019/07/04, 2019/09/25, 2019/10/31	BBT: Ingurumen hezkuntza orokorreko saioak diseinatu eta eskaini Bitartean programako parte-hartzaileei. Bitartean programako langile teknikoak: BTTrekin koordinazioa saioak planifikatzeko eta garatzeko eta parte-hartzaileak dinamizatzeko.	Bitartean programako partaide eta langile teknikoentzat 3 saio ingurumen jasangarritasuna gaiaren inguruan, bertakoa den horri zuzendua eta partaidetza komunitarioari garrantzia emanez.

5 JARDUERA: MUNGIALDEAN INGURUMEN JASANGARRITASUNAREN INGURUKO PROGRAMA MONOGRAFIKOA GAUZATZEA ETA HEDATZEA GANBARA GIZARTE IRRATIAN (GGI)

Kronologia	Aktore nagusiek egindako papera	Jardueraren laburpena
31/10/2019	Bitartean programako partaideak: Jardueraren diseinua eta eragile/bideratzaile nagusiak jardueraren garapenean. Bitartean programako langile teknikoak: Koordinazioa diseinurako inplikatutako gainerako eragileekin batera eta jardueraren diseinu prozesuan Bitartean zentroko partaideen dinamizatzaileekin batera. BBT: Kolaboratzaileak eta partaideak aldizkari monografikoaren garapenean, ingurumen jasangarritasunaren inguruan eta tokiko eremuan.	2019ko uztailetik Bitartean programak irrati komunitarioko esperientzia bat du abian Ganbara Gizarte Irratia izena duena. Irrati hau gizarteratzea sustatzeko tresna bat bezala sortzen da, herritartasun aktibo eta gizarte partaidetza gakoan. GGI irrati espazio bat bezala funtzionatzen du, partaidetza, lankidetza eta beste gizarte eragileekin, inguruko kolektibo eta mugimenduekin elkar trukea posible den, programa eta elkarrizketa ezberdinen diseinuan eta garapenean parte hartuz. Horrela, testuinguru honetan eta tokiko eremuan ingurumen-jasangarritasuna sustatzeko eta hedatzeko helburuarekin, programa bat garatzen da, Bitartean programako partaideek koordinatzen eta gauzatzen dutena; GGIn ere parte hartzen dutelarik, gaian aditua den eta BBTko kide den pertsona aditu baten lankidetzarekin.

✓ **Praktikaren helburuen, diseinuaren, planifikazioaren eta garapenaren identifikazio prozesua erraztu zuten testuinguruko faktoreak:**

- Esku Argi prozesuan zehar eraikitako artikulazioak, eragileen arteko (gizarte eta hezkuntza eragileak) erlazioan eta errekonozimenduan oinarrituak; hauek prozesuaren identifikazioan eta diseinuan parte hartzen dute.

- Gizarte eta hezkuntza eragile ezberdinen identifikazioa Giza Garapen Jasangarriaren sustapenarekin eta partaidetza komunitario inklusiboarekin, bertakoa den horren ikuspegiarekin baina globalera bideratuz.

- Ikuspegi partekatua eragileen arteko aliantzen sorrerarena, aldaketaren eragile bezala tokiko ingurunean, eta, ingurumen- eta bizitza-jasangarritasunarena, partaidetza komunitariorako elementu bideratzaile bezala, komunitarioa den horretatik prozesuak eta tresnak sortzearen aldeko apustu eginez, pertsona eta kolektibo guztien inklusioa sustatzen duen garapen bat bultzatzen dutenak.

- Lan kooperatiboaren aldeko apustu partekatua norbanakoaren, kolektiboen eta eragile-anitzeko gaitasunak bultzatzeko eta sendotzeko aldaketa eragile bezala. Era berean, lan partekatuari barneratuz prozesuaren, eraikuntza parte-hartzailearen ikuspegi bat izaera integrala eta bokazio eraldatzailea duena, alternatibak sortzeko ateak irekitzea posible egiten duena.

- Partaidetza komunitarioko gaian Esku Argi I garatzean bildutako esperientziak posible egin zuen sortzea eta garatzea lan-harreman aberasgarriak eta elkarren arteko konfiantzan oinarritutakoak. Hauek ikuspegi estrategikoa duen identifikazio parte-hartzaile baten garapena burutzera lagundu dute, sakontze parte-hartzailea eta kolaborazio-sakontzeari jarraitasuna ematera bideratuak daudenak, garapen komunitarioa eta bere dimentsio ezberdinen inguruan, guri tokatzen zaigun gertuko ingurunean eta gizarte eragile bat gehiago garen horretan, komunitate inklusibo baten eraikuntzan laguntzen duten artikulazio tresnak eta prozesuak sustatzeko. Aurreko fasean garatutako aurretiko lanak eskualdeko lan-sare bat sortzea erraztu zuen, Mungialdeko kontzientzia solidarioa zabaltzeko asmoz, eragileek parte hartzeko eta jarduerak dinamizatzeko herritarren kontzientziazio solidariorako eta eraldatzailerako.

- Lankidetza eta sinergiako bideen eta espazioen existentzia gizarte, ekonomia eta hezkuntza eragile ezberdinekin,

- con distintos agentes sociales, económicos y educativos propiciados por el desarrollo previo de acciones y proyectos conjuntos en el ámbito de la educación para la transformación, incidencia, investigación y comunicación que han posibilitado el desarrollo de experiencias positivas y participativas que puedan generar procesos de transformación de las estructuras generadoras de desigualdad, dominación y exclusión.

✓ **Praktikaren helburuen, diseinuaren, planifikazioaren eta garapenaren identifikazio prozesurako oztopo izan ziren testuinguruko faktoreak:**

- Erakunde bakoitzaren barne dinamikek ezarritako epeak bateratzeko zailtasunak, izaera estrategikoko ekintzak adosteko.

- Aurrez aurreko kolaborazio-lanarentzat emandako denboren koordinaziorako zailtasuna, nagusiki, prozesuaren diseinuaren fasean.

- Garatu beharreko jardueren akumulazioa, prozesurako identifikatutakoak alde batera utzita, erakunde eta eragile ezberdinen aldetik urteko une zehatz batzuetan.

- Benetako laguntza urria instituzio publikoen aldetik, gizarte eraldaketaren aldeko herritarren ekimenentzat.

- Beste eremuetako pertsonen edo/eta kolektiboen partaidetza sustatzeko zailtasuna, herritartasun guztiaren partaidetzara irekita dauden jardueretan parte hartzeko.

1: INFORMAZIOAREN BILKETA SISTEMATIZATUA ETA BALORAZIO KUALITATIBOAK NORBANAKOTIK ETA KOLEKTIBOTIK, GARATUTAKO ESPERIENTZIEI DAGOKIONEZAS

Kronologia	Aktore nagusiek egindako papera
Urtarrila-abendua 2019	BBT eta EGF: Prozesuaren garapenean zuzenean inplikatuta egon diren gainerako eragileekin koordinazioa eta prozesuan zehar sortutako informazioaren bilketa eta kontrastea.

2: SARRERAKO SAIOA HEZKUNTZA HERRIKOIAREN ETA ESPERIENTZIEN SISTEMATIZAZIOAREN INGURUAN, OSCAR JARA HOLLIDAY ADITUAREN ESKUTIK

Kronologia	Aktore nagusiek egindako papera
2019/09/26	Oscar Jara Holliday: Costa Ricako Alforja Zentroaren (Centro de Estudios y Publicaciones) zuzendaria eta Latinoamerika eta Karibeko Hezkuntza Herrikoia Kontseiluko presidentea. Hezkuntza herrikoian aditua eta argitalpen ugariren egilea hainbat gaien inguruan: hezkuntza herrikoia, gizarte mugimenduak eta esperientzien sistematizazioa. Saioaren dinamizatzailea eta bideratzailea. BBT eta EGF: Saioaren identifikazioa eta diseinua eta eragileekin koordinazioa bertan parte hartzeko. Identifikatutako ikaskuntzen bilketa.

3: AURREZ AURREKO LANTEGIAK SISTEMATIZAZIORAKO

Kronologia	Aktore nagusiek egindako papera
2019/11/21 2020/03/31	EGF, BBT: Lantegi saioen planifikazioa eta diseinua eta eragileekin koordinazioa bertan parte hartzeko. Fitxetan identifikatutako ikaskuntzen bilketa.

4: SISTEMATIZAZIO TXOSTENAREN LANKETA

Kronologia	Aktore nagusiek egindako papera
Apirila-maiatza 2020	BBT eta EGF: Txostenaren zirriborroa burutzea eta dokumentu horren kontrastea eta balioztatzearen koordinazioa, prozesuaren garapenean inplikatutako gainerako eragileekin.

4.
PROZESUAREN
INTERPRETAZIO KRITIKOA

Mota honetako prozesu bat burutzeko planteamendua, ingurumen jasangarritasunaren sustapenean lerrokatua eta pertsona guztien inklusioan garrantzia jarriz, aurretik garatutako lan batetik eratorri zen, nagusiki EGFk eta BBTk garatutako lanetik, gizarte eraldaketarako hezkuntzaren eremuan eta sentsibilizazioa eta intzidentzia Mungialdeko esparruan.

Mota honetako jarduerak garatzeko, azpitik egon den ideia edo asmoa gizarte eragileak, mugimenduak eta pertsonak gehitzea izan da, bai jardueren garapenean bai partaidetza komunitarioko espazioak sustatzera laguntzen duten hausnarketa eta intzidentzia batera, giza garapen jasangarriaren alde egin dezaketenak kasu honetan dagokigun eremu geografikoan (Mungialdean), baina lan honetara Bizkaiako beste akademia- eta gizarte-eragile gehitzeko ikuspegia galdu gabe: Eragile hauekin garapenerako hezkuntzaren ikuspegi hau partekatzen da.

Gizarte eraldaketarako, sentsibilizaziorako eta intzidentziarako hezkuntzaren inguruan adierazten genuen aurretiko lanaren esparruan, nagusiki prozesu hau garatzen hasi aurretiko bi urtetan zehar, EGFtik, BBTtik eta Mungiako GMtik ere sinergia eta osagarritasuneko lan bat garatzen joan da, modu horretan, posible izan da artikulatzea ingurumen jasangarriarekin eta komunitate justu eta inklusiboen eraikuntzarekin konprometituak dauden inguruko gizarte eragileen eta mugimenduen sare informal bat. Hizketaldi artikulatu honetatik sortzen da dokumentu honetan sistematizatu nahi den prozesu parte-hartzailea garatzeko ideia, *Komunitate inklusiboko eraikuntzarako ekarpenak En Transición mugimenduaren eskutik.*

Aurrekotik abiatuz eta sistematizazio ardatz bezala, **ingurumen jasangarritasuneko prozesu parte-hartzaile baten gaitasuna** balioztatzea delarik, **bazterketa egoeran edo/eta egoteko arriskuan dauden pertsonen inklusioaren sustapenari laguntzeko** Mungialdean, ondoren adierazten diren alderdiak identifikatzea eta islatzea ezinbestekoa ikusten dugu, prozesuaren bai diseinuaren esparruan bai bere garapenean ere sortutako elementu eta inputak bezala, eta, hezkuntza herrikoitik burututako sistematizazio parte-hartzaileko ariketa honetatik eratortzen dira.

1. Prozesuan gertatutako alderdi bideratzaileak:

- Eskuarki, pertsona batek auto-eraketako, zerbait sortzearen (ekintza bat, hitzaldi bat, aldizkari bat, elkarrizketa bat irratian...), lorpen kolektiboko bizipen esperientzia bat izaten duenean ilusio maila altua izaten du.
- Beste eragile edo/eta pertsonekin artikulatzeak pentsamendua, ikuspegia eta helburu komun baten identifikazioa eguneratzen laguntzen du.
- Artikulaziotik eta partaidetzatik lan egitean espazioak edo jarduerak partekatzeaz gain, elkarren arteko errekonozimendu bat sustatzen du.
- Prozesu baten eragile sustatzaileen arteko elkarren arteko errekonozimendua, lankidetzako beraien aurretiko lanak, etab. lan partekatuaren helburuen eta moduen identifikazio errazago eta egokiago bat posible egiten du.
- Beste eragile edo/eta pertsonei helburu batzuk lortzeko lankidetza erakartzeak, artikulazio parte-hartzaile batetik, pertsona gehiagotara iristea posible egiten du, pertsona edo/eta eragile berriei, etiketa itxiak ezarri gabe.
- Hezkuntza herrikoaren aldeko apustuak, ez bakarrik prozesu batean garapenerako esparru bezala, baita prozesu beraren auto-autoebaluaziorako, eta, hezkuntza herrikoi horren garapenaren azterketak sinergiak identifikatzen eta ikaskuntzak posible egiten laguntzen du, prozesuaren garapenaren berarekin modu paraleloan.

2.Prozesuan gertatutako oztopoak:

- Militantez edo/eta boluntarioz osatutako erakundeetan espazio fisikoen garapenerako une zehatzak koordinatzeak, koordinatzeko ahalegin handiagoa eskatzen du. Errealitate honek eragileen taldearen aldetik malgutasun gehigarri bat eskatzen du, oro har, ahalegin hauek aurretik jartzen dituzte eragileen artikulazioan parte hartzen duten pertsona multzoari bateratzea errazteko.
- Lan bat eta bere planifikazioa eta jarraipena garatzea eragile ezberdinen artikulazio batetik, batzuetan aurretiko planifikazioei dagokionez atzerapenak edo berregituraketak sor dezake, bai kanpoko dinamiken ondorioz bai erakunde bakoitzaren barne arrazoien ondorioz. Hori dela eta, erakunde parte hartzaile bakoitzean pertsona erreferente bat izatea ezinbestekoa da, denborak dinamizatzen dituena erakunde barrura eta gainerako erreferenteekin etengabeko koordinazioan dagoena.

3. Identifikatutako indarguneak: Prozesuaren funtsezko alderdiak

- Prozesuaren diseinuaren eta garapenaren aurretiko lankidetzako esperientzia praktikoa.
- Gizarte eragile ezberdinen ezagutza praktikoak eta teorikoak bildu dira, esparru ezberdinetatik eta eremu geografiko berdinean pertsona guztien inklusioa eta ingurumen jasangarritasuna lantzen ari direnak, garapen komunitario eraldatzaileko ikuspegi batetik.
- Gizarte eragileen mobilizazioko eta koordinazioko esperientzia praktiko pilotu arrakastatsuan bihurtzen den prozesua, garapen komunitario eraldatzaile baten sustapenerako.
- Tokiko ingurunean gako komunitarioetatik gizarte eraldaketa ere sustatzen duten beste eragile batzuen identifikazioa.
- Eragileen arteko aliantzak sortzearen ikuspegi partekatua, aldaketaren eragile bezala tokiko ingurunean.
- Gizarte eta hezkuntza eragile ezberdinen identifikazioa GGJren eta partaidetza komunitarioaren sustapenarekin, tokiko eremutik, ikuspegi globalarekin.
- Lan kooperatiboaren aldeko apustua pertsonen gaitasun indibidualak, kolektiboak eta eragile-anitzak bultzatzeko eta sendotzeko, aldaketaren eragile bezala.
- Ingurumen eta bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegi partekatua, partaidetza komunitariorako elementu bideratzaile bezala, pertsona eta kolektibo guztien inklusioa sustatzen duen garapen komunitario batera bideratzen duten prozesuen eta tresnen garapenetik.
- Prozesuaren izan daitekeen populazio onuraduna: Mungialdea osoa, Bizkaiako beste herri/mankomunitateetara hedatzeko ikuspegiarekin.

4. Prozesuaren garapenetik eta eragile ezberdinen artean eraikitako aliantzatik sortutako aukerak

- Esku Argi prozesuan zehar eraikitako artikulazioak sendotu, tokiko inguruneko gizarte- eta hezkuntza eragileen arteko erlazioan eta errekonozimenduan oinarrituak.
- Prozesuaren garapenean sortutako aliantza multi-eragilea lagundu, aldaketaren eragile bezala prozesua bera garatu den ingurunean, aliantza hau Bizkaia osora hedatzeko ikuspegiarekin.
- Pertsona guztien gaitasun indibidualak, kolektiboak eta multi-eragileak bultzatu eta sendotu, aldaketaren eragile bezala.
- Ingurumen- eta bizitzaren-jasangarritasuna bultzatu eta finkatu tokiko garapenerako elementu bideratzaile bezala, partaidetza komunitariotik.
- Bitartean programako partaideen ahalduntze inklusibo eta integratzaile bat sustatzen lagundu, aldaketaren eragile bezala.
- Partaidetza komunitarioko espazioak bideratu, sustatu eta artikulatu, baita hezkuntza formal eta informaletik, bokazio eraldatzailearekin.
- Garapen komunitarioari ekarpenak egiten dizkioten prozesuen eta tresnen garapena sustatu, pertsona eta kolektibo guztien inklusiotik.
- Hezkuntza eta sentsibilizazio ekintzei jarraipena eman Mungialdean, modu bateratuan eta lerrokatuan, ingurumen jasangarritasuna sustatzera bideratuta pertsona guztien inklusiotik.
- Mota honetako esperientzien diseinuan eta garapenean hezkuntza eta gizarte eragileak barneratu, jasangarritasunari eta gizarte eraldaketari ekarpenak egiten dizkietenak eremu ezberdinetatik, eta, prozesuan parte hartu duten eragile nagusiekin lotura dutenak.
- Bazterketaren errealitateak ikustera eman, zergatiak, gertutasuna eta bere izaera globala, baita bazterturako kolektiboen bizipenen eta ekarpenen garrantzia ere, bizitzaren jasangarritasuna errazten duten eredu komunitarioen eraikuntzan.

5. PROZESUAREN
GAKOAK ETA IKASKUNTZAK

- Partaidetzara irekiak dauden espazioak bideratu, sustatu eta artikulatu hausnarketarako, komunitate inklusibo eta integratzaile baten eraikuntzara ekarpenak egiten dizkioten elementuen eta ekimenen inguruan, tokiko giza garapen jasangarritik.
- Mungialdean sortutako gizarte eragileen sare multidimentsionala finkatu eta sendotu, aipatutako herriko Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriaren aldeko Talde Eragilearen inguruan.
- Komunitatearekin eta gure gertuko ingurunearekin, Mungialdea, erlazio estuago bat bultzatu, ingurumen- eta bizitzaren jasangarritasuna sustatzeko funtsezko elementua.
- Gaitasun indibidualak eta kolektiboak bultzatu eta sendotu, tokiko mailan.
- Bitartean programako partaideen ahalduntze inklusibo eta integratzaile bat sustatu.
- Tokiko eraldaketa pertsonala eta soziala sustatu, ingurumenarekiko armoniako esparru batean eta genero ikuspegiarekin.

"'Ikasitako ikaskuntza' bat ebaluatua izan den esperientzia batean oinarritutako orokortasun bat bezala definitu daiteke. Ikasitako ikaskuntzak 'esperientziak' baino gehiago direla igarri behar da. Ikasitako ikaskuntza bat ikaskuntza prozesu baten emaitza da, esperientziaren inguruan hausnartzera eramaten duena. 'Gertakizunen' edo 'deskubrimenduen' edo ebaluazioen pilaketa hutsak ez digu irakaskuntzarik ematen. Irakaskuntzak esperientzietatik abiatuta ekoiztu (jariatu edo atera) behar dira." [1]

Egun, hezkuntza herrikoiaren ikuspegi batetik abiatutako prozesu parte-hartzaile honen garapenari esker, prozesuko eragile parte-hartzaile ezberdinek prozesua esperientzia hau **esperientzia pilotutzat hartzen dugu, bai bere baitan bai utzi dituen ikaskuntzei dagokionez lankidetza eta lan esparru zabal bat irekitzen du eraikuntza komunitarioaren eremuan,** azken batean, giza garapen komunitario jasangarriaren sustapenaren eremuan.

Ildo honetan eta dokumentu hau ikaskuntzako baliabide bat izateko helburuarekin, bai Mungialdean bai Bizkaian zehar mota honetako esperientziak errepikatzen laguntzea duen baliabide bat bezala, 2019 urtean zehar Mungialdean garatutako ingurumen jasangarritasuneko prozesu parte-hartzaile osoaren garapenetik eratorritako ikaskuntza nagusiak jasotzen ditugu.

1. Ikasitako ikaskuntzak

1. Ingurumen jasangarritasunaren ikuspegi eraldatzaile batek laneko ardatz bezala ingurumen- eta bizitzaren-jasangarritasunaren paradigma finkatzera eramaten gaitu. Bizitza erdigunean jartzeak zaintzaren etika batera, bizitzaren zaintzaren etika batera eramaten gaitu: bizitza berarena, zerbait partekatzen dudan pertsona horiena (afektiboa, soziala, politikoa...), hedaduraz beste pertsona eta herriena, intzidentzia berezia eginez zapalduta dauden horietan, eta, azkenik, naturarena.
2. Genero ikuspegia aldagai politiko bat bezala hartu behar da. Horrela, lana posizionamendu feminista batetik, emakume eta gizonen arteko erlazioetan aldaketak emateaz gain, pertsona guztientzat gizarte eta mundu justuago eta jasangarriago baten eraikuntza planteatzen du, horizontalagoa, parte-hartzaileagoa, atseginagoa, gehiago zaintzen duena, amultsuagoa eta anitzagoa.
3. Prozesu parte-hartzaile bat hezkuntza herrikoitik garatzea estrategia metodologiko batera eramaten du, pertsonen eta eragileen auto-errekonozimenduari laguntzen diotenak, aldaketaren sortzaile bezala, eta ahalduntzen gaituena lan komunitario parte-hartzaile baten jarraipenari dagokionez, ikusi nahi dugun aldaketa izatera lagun diezagun eta garapen inklusibo eta jasangarri baten garapena sustatzera, eragile parte-hartzaileetatik haratago.
4. Komunitarioa denaren ikuspegi batetik -munduaren hazkunde, eraldaketa eta ulermeneko espazioa-norbanakoaren auto-ezagutza eta sendotze kolektiboa elkar-lotzen dira. Prozesu honetan identitate kolektibo komunitario propioa sortzen doa, identitate indibidualetatik elikatzen dena, xehetasunez aberasten dena bere kideen identitate espektroa geroz eta anitzagoa denean.
5. Prozesuaren garapenean bazterketa arrisku egoeran dauden komunitateko kideak egoteak ikustera ematen eta bultzatzen laguntzen du, aldaketaren eragile aktibo bezala bere tokiko ingurunean. Ildo honetan, mota honetako prozesu bat garatzea alternatiba erreal bat da norberaren zein kolektiboaren hobekuntzarako.
6. Mota honetako prozesu batek bere emaitzak lortu ahal izateko eta intzidentzia positibo bat izateko, gizarte eraldaketa gakoan, ezinbestekoa da diseinatzea eta garatzea talde eragile baten artikulaziotik, eremu komunitarioan gizarte eraldaketarekin konprometituak dauden gizarte eta hezkuntza eragile ezberdinak daudenak, eta, ingurumen jasangarritasunarekin, inklusio emantzipatzailearekin, partaidetza komunitarioarekin eta genero berdintasunarekin identifikatuak daudenak.
7. Diseinua eta garapena prozesuaren, sentsibilizazio eta intzidentzia jardueren elementu bezala, prozesuaren garapeneko aldi bateko markotik haratago doan jarraitasun bat daramatenak (Tximeleten oasia eta lankidetzak irratian, besteak beste), bokazio zabala duten tokiko lan-sareak sortzera eta finkatzera laguntzen du, mota honetako jardueren jarraitutasuna aberasten duten sinergiak eratortzen direlarik, baita ingurumen-jasangarritasunaren sustapenera bideratutako ekintza berrien diseinua eta garapena ere, ikuspegi inklusibo eta bokazio eraldatzaile batekin.
8. Prozesua eta prozesua osatzen duten ekintzak diseinatzeko garaian beharrezkoa da helburua egokitua egotea, prozesuaren aktore zuzen eta zeharkakoen beharretara. Aktore ezberdinen identifikazioa honek, prozesuaren helburuekin eta horren inguruko esparruan garatutako ekintzekin, prozesuaren helburuak bereganatzera laguntzen du eragile ezberdinen aldetik, baita bere lorpenak, sinergiak eta aukerak.
9. Prozesu parte-hartzailearen garapenaren buru den talde eragilearen pertsona edo/eta gizarte eragile kopurua hain zabala ez izatea mesedegarria da mota honetako esperientzia lehen aldiz garatzeko, hau da, esperientzia pilotu bezala. Egoera honek prozesuko helburuak modu eraginkorrago batean finkatzea eta erakunde parte-hartzaile bakoitzaren barrura sartzea posible egiten du. Era berean, prozesuaren garapenak berak eragileen arteko loturak sendotzen laguntzen du, baita gakoak diren beste hainbat eragile identifikatzea eta prozesura barneratzea ere lan parte-hartzailerako, garapen komunitario inklusioaren esparruan.
10. Hezkuntza herrikoitik garatutako prozesu parte-hartzaile batetik eratorritako esperientzia eta ikaskuntza orok, gaitasun indibidual batzuk eta ikaskuntza kolektibo batzuk identifikatzea posible egiten dute, praktika aberasgarriagoa eta eraginkorragoa sortzeko alternatiba berrien irekiera ekar dezaketenak.
11. Garrantzitsua da eragile parte hartzaileen identitate kolektiboa sendotzea ekimenaren sustatzaile bezala. Identitate kolektiboak auto-errekonozitzea eta koomunitatea izendatzea da, elkarrekikotasuneko parametroetatik funtzionatzeaz gain. Identitate indibidualak eta kolektiboak dinamikak dira eta atzeraelikadura egiten dute.

[1] *ACOSTA, L.A. Guía práctica para la sistematización de proyectos y programas de cooperación técnica. Oficina Regional de la FAO para América Latina y el Caribe, julio 2005. (19 orr.).*

www.emaus.com

ESKU-ARGI II

PROZESUAREN SISTEMATIZAZIOA
KOMUNITATE INKLUSIBOKO ERAIKUNTZARAKO EKARPENAK EN TRANSICIÓN MUGIMENDUAREN ESKUTIK

emaús
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL